

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure zerbitzua aurrera eraman ahal izateko, hainbat funtzio eta betebeharrak egin beharko ditugu. Atal honetan, jarduerak horiek zehaztu eta azalduko ditugu.

Kanpoko enpresa bat kontratatu beharrean, taldekide bakoitzak dauzkan gaitasunak aprobetxatu behar ditugu kostuen egitura baxuagoa izateko. Beraz, modu honetara gure proiektua errentagarriagoa izango da eta etorkizunean etekinak lortzea errazagoa izango zaigu.

Gainera, aplikazioak eta batez ere enpresak ondo funtzionatzeko gure arteko komunikazioa zaintzea funtsezkoa izango da. Bestela, gure artean arazoak edo gaizki-ulertuak gertatu daitezke eta hori proiektu bat aurrera eramateko gehien frenatzen duena da. Izan ere, gure ustez arrakastaren puntu garrantzitsu bat komunikazioa da.



Gure enpresaren oinarria aplikazioa funtzionatzeko Renfe eta Lurraldebusekin akordio batera iristea da. Izan ere, gure produktuen helburua Gipuzkoan garraio publikoaren eguneroko arazoak ekiditea eta aurreikustea da, jendeari

denbora aurrezteko eta bidaia hobeto planifikatzen laguntzeko. Renfe eta Lurraldebusekin hitz egingo duena Aslam da, gure enpresaren irudia; aurpegia. Aslamek konbentzitzeko eta komunikatzeko gaitasunak dituelako aukeratu dugu enpresaren aurpegi.



Horrez gain, behin aplikazioa funtzionatzen hasten denean Telmok egunero begiratuko ditu ea GPS-ak edo aplikazioak arazorik duen. Telmo, gure taldeko informatikaria da, eta ordenagailutik ikusi dezake arazorik dagoen edo ez, arazoren bat ikusten badu GPS-an taldeko teknikariari ohartaraziko dio. Hau da, Txomini, arazoa daukan tren edo autobusarengana joango dena arazoa konpontzera edo GPS-a aldatzera. Hau egunero egingo dugu ez dugulako nahi GPSrik ondatzea, honekin, aplikazioa jendearentzat fidagarria izatea lortuko dugu, arazo guztiak azkar konponduko ditugulako.

Azkenik, Adamek iradokizunak kudeatzeaz gain gure ekonomia eta finantzak kudeatuko ditu ere, hau da: banku kontua, aurrekontua, zergak ordaintzea, inbertsioak, kontabilitatea,

gastuak, irabaziak, irabazi iturriak, arriskuen kudeaketa... Gainera, atal hau taldeari komunikatzea eta azaltzea bere betebeharretako bat izango da.

